

UDALA AYUNTAMIENTO



Bilbao

Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2014


Bilboko biztanleriaren bilakaera, sexuaren eta nazionalitatearen arabera (2000-2014)

	Biztanleria guztia			Hemengo biztanleria			Atzerriko biztanleria		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
2000	167.864	186.407	354.271	165.914	184.404	350.318	1.950	2.003	3.953
2001	167.681	186.262	353.943	164.703	183.115	347.818	2.978	3.147	6.125
2002	167.662	186.288	353.950	163.393	181.737	345.130	4.269	4.551	8.820
2003	167.520	186.047	353.567	162.070	180.401	342.471	5.450	5.646	11.096
2004	166.854	185.463	352.317	160.447	178.821	339.268	6.407	6.642	13.049
2005	167.314	185.859	353.173	159.264	177.694	336.958	8.050	8.165	16.215
2006	167.652	186.493	354.145	157.983	176.551	334.534	9.669	9.942	19.611
2007	166.799	186.369	353.168	156.049	175.229	331.278	10.750	11.140	21.890
2008	167.030	186.310	353.340	154.649	173.749	328.398	12.381	12.561	24.942
2009	168.019	186.841	354.860	153.927	172.957	326.884	14.092	13.884	27.976
2010	167.019	186.168	353.187	152.831	171.971	324.802	14.188	14.197	28.385
2011	167.176	186.080	353.256	152.122	171.271	323.393	15.054	14.809	29.863
2012	166.632	185.770	352.402	151.404	170.807	322.211	15.228	14.963	30.191
2013	165.170	184.699	349.869	150.913	170.433	321.346	14.257	14.266	28.523
2014	163.703	183.575	347.278	150.373	170.063	320.436	13.330	13.512	26.842
2000-2014	-4.161	-2.832	-6.993	-15.541	-14.341	-29.882	11.380	11.509	22.889

Sexuaren eta nazionalitatearen arabera, 2014ko urtarrilaren 1ean bertako biztanleen % 47,14 gizonetzkoa zen eta % 52,86 emakumezkoa. Atzerritarren artean, berriz, % 49,66 eta % 50,34 hurrenez hurren.


2000. urteaz geroztik, 6.993 pertsona galdu ditu Bilbok: bertako 15.541 gizonetzko eta 14.341 emakumezko, baina, bestalde, atzerriko 11.380 gizonetzko eta 11.509 emakumezko irabazi.

Bilboko biztanleriaren bilakaera, nazionalitatearen arabera (2000-2014)




2014ko urtarrilaren 1ean, Bilbon 2000. urteko egun berean baino 6.993 pertsona gutxiago daude errolatuta eta atzerritarren kopurua 26.842 pertsonakoa da.

Atzerriko biztanleriaren urterik urteko bilakaera Bilbon, 2000-2013




2013an, 2012an gertatu zen antzean, Bilbon 1.681 pertsona gutxiago zeuden erroldatuta. Emariak aukera ekonomikoei lotuta daude, medioen alarmismotik aparte eta entzungor eginez ongizatearen "tirari".

Immigrazioaren bilakaera Bilbon (2000-2014) eta beste testuinguru batzuetan (2014)




Bilbon, azken urteotan, gutxitu egin da atzerritarren kopurua, EAEko hiru lurraldeetan eta Espainian bezala.

Gero eta feminizazio handiagoa ordezko nazionalitateen artean, 2014 (%)




Ordezko nazionalitaterik garrantzitsuenak latinoamerikarrak dira eta feminizazioa areagotu dute edo lehengoan diraute gutxienez.

Hogei nazionalitaterik garrantzitsuenak 2014an



1. 2014ko urtarrilaren 1ean hauek ziren nazionalitaterik garrantzitsuenak: Bolivia, alde handiarekin, Maroko, Errumania eta Kolonbia.
2. Bolivia gero eta pisu gehiago ari da galtzen, beharbada nazionalizioengatik edo euren herrialdera itzuli direlako krisiaren eraginez; izan ere, oraindik gutxi dira nazionalizatu diren boliviarrak: "huts egindako emigrazioa" izan ote den gaude,
3. Aitzitik, Marokok eta Errumaniak atzean utzi dute Kolonbia eta gero eta gehiago dira handik datozenak. 2014ko urtarrilaren 1an, Maroko eta Errumania dira EAEko nazionalitaterik handienak.


Dependentziaren tasa*, nazionalitateen eta sexuen arabera, 2014



* Dependentziaren tasa: 16-64 urteko zenbat pertsona dauden 16 urtetik beherako eta 65etik gorako pertsona bakoitzeko.

Adinaren datuek berresten dute atzerritarren dependentzia eskasaren transferentzia; horrek arindu egiten du nolabait bertako biztanleriarena. Hemengo pertsonen dependentzia handia (1,77) orekatu egiten du nolabait atzerritarren dependentzia txikiak (5,26). Hau da, dependentzia duen pertsona baten premiei aurre egiteko hemengo 1,77 pertsona dauden bitartean, atzerriko 5,26 pertsona daude.

Atzerritarren portzentajea Bilboko auzoetan, immigrazio tasarik HANDIENETIK TXIKIENERA antolatuta*




* Barrutietan SAKABANATUTAKOAK kendu egin dira garrantzirik ez dutelako.

Immigrazio-tasarik handienak Bilbo Zaharrean daude.


Ondoren, Ibaiondo eta Errekalde barrutietako beste auzo batzuk daude.

Atzerriko biztanleriaren bilakaera Bilboko barrutietan



Bilboko barrutietako joera nagusia atzerriko biztanleriaren portzentajearen beherakada da. 2013an barruti guztietan gutxitu da portzentajea.

Atzerriko biztanleen portzentajea Bilboko barrutien arabera: 2008 eta 2014



1. 2008-2014 urteen artean, azken urteen atzerriko biztanleen portzentajeak behera egin duen arren, barrutik gehienetan gora egin du atzerriko biztanleen portzentajeak.
2. Atzerriko biztanleen gorakadarik handiena Errekalden izan da, % 8,6tik % 10,1era. Gora egin du baita Begoñan (1,1 puntu gehiago), Otxarkoaga-Txurdinagan (0,9 puntuko gorakada), Uribarrin (0,6 puntuko gorakada), Basurto-Zorrotzan (0,3 puntuko gorakada) eta Abandon (0,2 puntuko gorakada).
3. Duestuk tasa egonkorra du eta Ibaiondon behera egin du apur bat (0,1 puntuko beherakada).



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

Egoitza-baimena duten atzerritarren estimazioa, jatorri geografikoaren arabera, Bilbon

	Bilbon erroldatuak			Ratioa	Estimazioa
	Gizonak	Emakumeak	Guztira		Erregularizatuak
	13.330	13.512	26.842	0,93	25.176
Europa	2.523	2.660	5.183	1,00	5.012
EB15	1.140	867	2.007	1,00	2.007
EB25	66	110	176	1,00	176
Errumania, Bulgaria eta Kroazia	1.133	1.363	2.496	1,00	2.496
Europako gainerakoa	184	320	504	0,66	333
Afrika	4.596	2.107	6.703	0,85	5.728
Magreb	2.477	971	3.448	0,84	2.896
Afrikako gainerakoa	2.119	1.136	3.255	0,87	2.832
Amerika	4.748	7.584	12.332	0,99	12.309
Ipar Amerika	79	97	176	0,87	153
Latinoamerika	4.669	7.487	12.156	1,02	12.156
Asia	1.450	1.158	2.608	0,81	2.113
Txina	943	910	1.853	1,05	1.853
Asiako gainerakoa	507	248	755	0,33	260
Ozeania	13	1	14	0,83	12
Apatridak eta daturik gabe	0	2	2	2,62	2

Erregularitasun administratiboan dauden pertsona-kopuruari buruz INEk Bizkairako emandako datuetan oinarrituta, uste dugu Bilbon erroldatuta dauden 26.842 atzerritarretatik 25.176 egoera erregularrean egon daitezkeela, hau da 0,93ko ratioa.

Krisialdi ekonomikoaren eta atzerriko biztanle-kopuruaren piskanakako beherakadaren ondorioz eta hemen daudenak gero eta gehiago nazionalizatzen direnez eta beste batzuk euren herrialdeetara itzultzen direnez, atzerriko biztanleen erregularizazioaren ratioa 1era hurbiltzen da.

Bilbon erroldatutako biztanleria, nazionalitatearen eta jaioterriaren arabera (fr.)

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Atzerritarrak	26.842	13.300	13.512
Atzerrian jaiotako euskal herritarrak	10.234	4.146	6.088
Espainiako estatuan jaiotako euskal biztanleak	310.202	146.227	163.975
Erroldatuak, guztira	347.278	163.703	183.575


Atzerrian jaiotako 10.234 pertsona daude erroldatuta Bilbon eta, atzerrian jaio eta espainiar nazionalitatea duten euskal herritarrak salbu, biztanle nazionalizatutzat jo daitezke.

Kolektibo hori Bilboko biztanleriaren % 2,95 da. Pertsona horiei (gaur egun atzerrian jaiotako euskal biztanleria) gehitzen badizkiegu atzerritar nazionalitatea dutenak, ikusten dugu Bilboko biztanleen % 10,7k atzerriko jatorria duela eta gainerako % 89,3ak estatu espainiarreko jatorria duela.

Sexuen arabera, nazionalizatutako euskal biztanleriaren % 59,5 emakumezkoa da eta % 40,5 gizonezkoa.



Nazionalizatutako euskal biztanleria, jatorrizko nazionalitateen arabera (fr.)



Taulan adierazitako nazionalitateak atzerriko jatorria duten pertsona nazionalizatuen 20 ugariena dira.

Ikusten dugunez, ugariena, alde handiarekin, Kolonbiako biztanleria da, atzetik datorrena, Ekuador, bikoiztuz. Honek ere ia bikoiztu egiten ditu atzetik datozkien nazionalitateak.

Nazionalitate hauen artean aipagarriak dira amerikarrak ez ezik europarrak ere, hala nola, Frantzia, Alemania, Errusia, Erresuma Batua edo Portugal.

Ondorio orokorrak

1. Aipatu dugunez, azken urteotan, XXI. mendearen hasierakoa ez bezalako ziklo migratzailean gaude eta hauek dira bere ezaugarriak: immigrazioaren beherakada handia, nazionalizazio gehiago eta, hortaz, atzerriko nazionalitatea duten biztanleen beherakada.
2. Bilbon bizi diren atzerritarren portzentajea % 7,7 da, 2013an baino bost dezima gutxiago. Espainiako zifren (% 10, 7) eta EAEkoen (% 6,4) artean dago. Zifra horri atzerrian jaiotako euskal herritarrak batzen badizkiogu, jatorriz kanpokoak diren pertsonen portzentajea % 10,7 da Bilbon.
3. Azken urte bietan Bilbon erroldatutako atzerriko biztanleen beherakada garbia izan da. Azken urtean Bilbok behera egin du biztanleen kopuruan (2.600 pertsona inguru). Atzerriko nazionalitatea dutenak (1.700 pertsona inguru) eta hemengoak ere (900 pertsona inguru) gutxitu egin dira.
4. Espazioaren banaketari dagokionez, berriz diogu gaur eta orain ezin dela esan bizilekuaren segregaziorik dagoenik atzerritarrentzat. Atzerritarren biztanleria behin finkatuta dagoenean, hiriko barrutietan eta auzoetan sakabanatzen da. Joera hau, batez ere, hemen bizitzen daramaten denboraren arabera izan ohi da. Hala ere, ez da beti betetzen Afrikako etorkinekin, batez ere Saharatik beherakoekin, mugitzeko eredu eta aukera mugatuak dituztelako.
5. Azken urteotan pisu erlatiboa galtzen ari gara atzerritarren artean, latinoamerikarren nazionalizazioen kopuruak gora egin duelako. Bestalde, gora egin dute beste nazionalitate batzuk, marokoarrak, errumaniarrak eta txinarrak, esaterako.

UDALA AYUNTAMIENTO



Bilbao

Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2014
